



Garagardoa egiteko lupulu landaketak urumea bailaran

■ IÑAKI SANZ-AZKUE

Non eta, sagardoaren lurraldean. Zer eta, zerbeza egiteko landarearen landaketak? Gezurra badirudi ere, sagardoa egiteko sagastiek protagonismoa izan duten eremuan, zerbeza egiteko lupulu landaketak ere izan ziren XX. mendearen erdialdetik aurrera Urumea bailaran. Hori, ordea, oroimenean ia galdua zegoen kontua izan da urte askoan.

Eta hargatik, lupuluaren arrastoaren atzetik ibili gara, dokumentu zaharren eta adineko testigu batzuen baitan ezkutuan dagoen sekretuaren bila. Euskal Herrian eta Urumea bailaran izan ziren lupulu landaketen azken arrastoen atzetik. Izan ere, garagardo artisauaren bultzada berri honetan, ezin ahaztu dezakegu lupuluak gure bailaran izan zuen loraldia.

Harrituta gelditzen da jendea. Ez da gutxiagorako. Urumea bailaran garagardoa egiten zenik ere... guk ere harrituta entzun genuen kontatu ziguten aurreneko aldian. Akola baserriko (Ereñotzu) Antonio Santa Kruzekin izandako elkarriketa batek atera zuen gaia. Landareen bertako izenak biltzen ari nintzela bota zuen, zapla: “zerbeza loria”. “Guk zerbeza loria deitzen genion, eta beste batzuk lupulua. Landare horren lorearekin zerbeza egiten baita. Ereñotzun ere izan ziren landaketak. Latxeko presaren goialdean, esaterako.” Gaiak arreta deitu zigun, eta hala hasi ginen hariari tiraka: *izango al da horri buruz dakienik?*

Eta bazen, baina ez ziren asko. Izan ere, XX. mendean garagardoa egiteko jarri ziren lupulu landaketen jabeak hilda zeuden gehientsuenak. Horien seme-alabak, ordea, ez. Horiek izan ziren gure lehenengo iturria. Eta horrela ireki genuen txorota. Oraindik ere amaierarik ez duen ur emaria. Izan ere, lupuluaren gaiak misterio asko ditu. Horietako asko, oraindik ere argitu gabeak. Goazen, alabaina, dagoeneko badakiguna kontatzera. Zer zen lupulua, eta zertarako aldatu zuten Urumea bailarako baserritar batzuek?



Zer da lupulua?

Lupulua (*Humulus lupulus*), zerbeza-loria (Hernani, Mutriku), zerbeza-landaria (Hondarribia) edo bierbelarra (iparraldea) moduan ere ezaguna dena, *Cannabinacea* familiako landarea belarkara da. Lur azpian errizoma izeneko zatia izan ohi du eta bertatik, urtero, lupulu landare berriak jaiotzen dira. Igokaria da, aihena, zurtoinean dituen ile txiki eta sendoak erabiliz beste landareetan edo zurtoinetan gora egiten baitu, sei-zortzi metrotarainoko altuerara iritsi daitekeelarik.

Espezie dioikoa izaki, lore arrak eta emeak landare bereizietan izan ohi ditu. Lore emeak (ernaldu gabeak) garagardoa egiteko erabili izan dira XIV. mendetik, izan ere, euren barruan duten lupulina izeneko erretxina da garagardoari usaina eta zaporea ematen diona. Hau dela eta, lupulu landaketetan soilik ale emeak hazten dira.

Egun dozenaka lupulu barietate dauden arren, Euskal Herrian bada bertako lupulua ere, modu basatian erreka ertz eta hezetasun handiko gune epeletan hazten dena.

Lupulu (*Humulus lupulus*) landarea, lorea eta lorea luopulinarekin (Jesus Azkue).

Lupulu landaketak: Galizatik Urumeara.

Hernanin ere bazen lupulu basatirik, baina landaketa ez zen sekula izan. XX. mende erdialdeko Urumeako baserritarrek, alabaina, ez zuten kasualitatez erabaki lupulua bertako lurretan landatzea. Behar bat zegoen. Eta behar horrek, eta batez ere, hernaniar batek animatuta, landatu zituzten lupulu landareak euren lurretan.

Gezurra badirudi ere, Urumeako lurretan lupulu landaketak izateak erlazio zuzena du Bigarren Mundu Gerrarekin. Garagardoa, Urumea bailara eta Bigarren Mundu Gerra gai berean korapilatuta. Interesa hartzen du gaiak, ezta? Goazen kontatzera.

Arestian esan bezala, Urumea bailaran sekula ez zen lupulu landaketa egitea pentsatu. Hori, ordea, ez zen gauza arraroa. Izan ere, 1914ean hasi ziren lehenbiziko aldiz frogak egiten Galizian bertan lupulu landaketak jarri zitezkeen ikusteko. Ingalaterratik landare bat ekarri, eta bertan haztea posible zela ikusi zuten orduan.

Hori gutxi balitz, lupulu landaketen frogak arrakastatsuak izan ziren: lupulua landatzea posible zen, eta kanpotik ekartzea baino merkeago gainera.

Ordurako Espainian garagardo fabrikak martxan ziren, baina jabe gehienak alemaniarak izaki, haiek Alemaniako eta Austriako lupulu landaketetatik ekartzen zituzten garagardoa egiteko behar zituzten lupulu loreak. Beraz, zertarako egin landaketak inork ez bazuen bertako lupulua erosiko?

A Coruñan, ordea, etsi gabe frogekin jarraitu zuten, eta 30. hamarkadaren hasieran landaketen froga berriak egin zituzten Galiziatik kanpo, hiru leku ezberdinetan: Granadan eta Hego Euskal Herriko bi leku ezberdinetan, Bizkaian eta Nafarroan, bertako Aldundiek bultzatuta.

Gordexolako Ibarako lautadako lupulu landaketa (Floren Elorduy Torrontegi, GAUR 8, 2019/09/14)



Lupulu landaketak: gerrek utzitako herentzia

1937an, ordea, Espainia Gerra Zibilean bete-betean sarturik zegoela, Espainian zeuden diru arazoak ekidin nahian edo, 1937ko azaroaren 10an, Espainiako Gobernuak lupuluaren landaketak eta aprobetxamendua erregulatu zituen eta “Sección de Fomento del Cultivo del Lúpulo en España” sortu zuen. Landareak banatzen hasi eta landatzeagatik diru-laguntzak ematen ere hasi ziren. Era berean, fabrikak kanpotik erosten zuten lupuluaren prezio berean erostera derrigortu zituen gobernuak. Honela 1941ean, Galizia eta Asturiaseko landaketetan 50.000 landare aldatu zituzten. Baina lupulu alemaniarrek iristen jarraitzen zuen eta laborantzako produktuen prezio igoera dela eta, laborari askok lupulua landatzeari utzi zion.

Gakoa, ordea, 1944an egon zen. II. Mundu gerraren ondorioz, Alemaniatik ez zen lupulurik iristen eta Espainiako “Ministerio de Agricultura” zelakoak dekretua atera zuen 1945ko maiatzaren 23an, landaketei buruzko legeak ezarritz. Garagardo fabrikek “Sociedad Anónima Española de Fomento del Lúpulo” sortu eta Espainiako lupulu landaketen kudeaketaz arduratu ziren, beti ere “Sección de Fomento del Cultivo del lúpulo”koen begiradapean. Garagardo fabriken artean, hego Euskal Herriko fabrika esanguratsuenak zeuden: Juan y Teodoro Kutz (Donostia), La Cervecera del Norte (Bilbo), La Salve (Bilbo), La vizcaína (Bilbo), Cervezas Knorr (Gasteiz). Hauen itzalean, pixkanaka-pixkanaka lupulu landaketak hego Euskal Herrian sartu ziren, eta garagardo fabrikak, ahal zuten heinean, bertan landaturiko lupulua erabiltzen hasi ziren garagardoa ekoizteko.

Eta lupulua Urumean sartu zen...

Eta Urumeako biztanleak lupuluaren munduan barneratu ziren. Izan ere, gertuko arrazoi bat zuten horretarako. Antonino Pagola hernaniarra izan zen Gipuzkoako lehenbiziko lupulu landaketa jarri zuena. Non eta Hernanin. Urumeako erriberan, Portu eta Karabel auzoen artean, hain zuzen ere. 1945an izan zen, eta Espainiako Gobernuko “Dirección General de Agricultura” izan zen sustatzailea. Bertan “Golding” edo “Dorada de Kent” izeneko barietatea sartu zen, 1914an Ingalaterratik Galiziara ekarri zena, hain zuzen ere.



Antonino Pagola landaketan, eta inausketa egiten (Vicente Ruigómez, Agricultura. Revista agropecuaria)

Esperientziaren emaitza onak ikusita, 1949an lupulu landaketak zabaltzen hasi ziren, 1950erako Gipuzkoako 20 herritara iritsi zelarik, 33 nekazariren parte hartzearekin. Hondarribian, Oiartzunen, Astigarragan, Hernanin, Usurbilen, Orion, Gabirian, Mutiloan, Azpeitian, Mutrikun, Oñatin... izan ziren landaketak, besteak beste. 1950erako hego Euskal Herrian 20.000 lupulu landare zeuden jada, 225 nekazariren ardurapean.

Lupuluaren loraldia, ordea, landatzeko zailtasunek, lanaren gogortasunak, eta, batez ere, dirulaguntzen amaierak ekarri zuen. Hala, Gipuzkoan 1945etik 1958ra 10 hektareatan mantendu ziren landaketa azalerak, baina segituan murrizten hasi ziren, 1968rako desagertu zirelarik.

Astigarragan, Hernanin, Goizuetan...

Urumea bailaran, baserritarren aholkularitzaz arduratzen zena, Antonino Pagola bera izan zen:

"Gure aita Antoninorekin moldatzen huen, hark esaten ziguken baita jasotzeko garaia noiz huen ere".

Antoninok bultzatuta, lupulu-landaketak jarri ziren Astigarraga, Hernani eta Goizuetako erriberetan. Astigarragan Desierto baserriaren inguruan landatu zen lupulua, Hernanin Akarregi eta Pagoaga arteko erriberatan 10 familia ezberdinek izan zituzten landaketak (Akarregin, Portun, Ibarluzen, Lizarragan...); eta Goizuetan Olaberriko errota eta Idoitako askaren inguruetan izan ziren.

Lupulu landaketetan landarearen lorea jasotzen zen, baina zerbeza egiteko, lorea lehortu beharra zegoen. Horretarako Gipuzkoako lehortze planta bakarra ere Urumea bailaran izan zen: Ergobian, hain zuzen ere.

Hala, baserritarrek berde zegoela jasotzen zuten lupulua. Hasieran euskal baserrietako ganbarak erabili ziren lehortzeko. Ondoren, Estatuak lehortze plantak sortzea pentsatu zuen, eta hala, Ergobian bertan kokatu zen Gipuzkoakoa. Ber-

tan labea zegoen eta koke ikatzarekin funtzionatzen zuen:

"Gure aitak eman zian gurdikada bat koke Amaratik Ergobiara, lupulua lehortzeko plantara".

Behin lehortuta, lupulua prest zegoen fabriketara eramateko eta garagardoa egiteko prozesuan erabiltzeko. Baina, Urumea bailarakoa nora eramaten zen? Testigu askok aipatu digu ez zekiela zehazki euren etxeko lupulua nora joaten zen. Zantzu guztien arabera, alabaina, Urumeako lupulua Donostiako Antigua auzoan kokatua zegoen Juan y Teodoro Kutz anaiei garagardo fabrikara bideratzen zen, ondoren *Cervezas el León* izena hartuko zuenera.

Baratzeen itxuraldaketa

Lulupu landaketak ezagutu zituzten guztiek nabarmentzen dute gauza bera. Baratzeen itxura guztiz aldatu zela lupulua landatu zen lekuan. "6-8 metroko arba luzeak izaten hituen baratzetan. Eta hauetatik gora igotzen huen lupulua, babarra bezala!". Dozenaka makila luze eta lodiak jarri ziren, lupulu landareak behetik gora igotzeko. Errenkan izaten ziren, gainera. "Bata bestetik metro eta erdi, bi metroko distantziara". Sasi-akaziaz edo gaztainez eginak izaten ziren sarritan. "Nafarroa aldetik ekarri behar izan genian gaztaina". Beranduago etorriko ziren arba hauek ordezkatzeko zituzten alanbreak, lanerako hobeak.

Arbak lurrean sartu aurretik, ordea, izaten zen lana, zulo sakonak egin eta lupulu landare berria sartzeko. Lupulua pujatik ateratzen zen. Ez zen ereiten. Horrela aterako zen landarea emea zela ziurtatua zegoen. Garagardoa egiteko, landareak emea behar zuen eta. Landaretik ateratako puja berriak moztu ziren. Ondoren, udaberri hasieran, landatu eta hauen aldamenen sartzeko ziren arbak edo makilak. Landarea hazten zihoan heinean arbara gidatu eta enborrean gora igotzen zen lupulua: "uda hasierarako 6-8 metroko altuera hartzen zian." Abuztu erditik aurrera hasten zen lorea botatzen lupulua, iraila erdira arte. Orduan beste une garrantzitsu bat hasten zen: lupulu-lorea jasotzeko garaia zen!

Emakumeak eta umeak lupulua jasotzen

Europa erdialdean, lupuluaren tradizioa oso errotuta dagoen lekuetan, lorea jasotzeko prozesua festa handia izaten zen, garai batean behintzat. Mahastietan mahatsa jasotzeko garaia iristen den moduan, jende andana elkartzen zen lupulu landaketetan ere, jasotzeari berari festa giroa emanaz. Euskal Herrian, ordea, jasotze prozesua oso bestelakoa izaten zen. Landaketa gehienak tamaina txikikoak izan ziren, gomendatu ere hala egiten baitzuten. Honela, familia bera izaten zen lorea jasotzeaz arduratzen zena.

“Ettxekoak egoten gintuan jasotzen. Lan gogorra izaten huen. Eguzkiak bete-betea josten zian eta euriarekin ezin jaso”.

Hernanin, ordea, bazen lupulua jasotzera herriko jendea eramaten zuenik ere. Antonino Pagolarena izan zen Gipuzkoako lehenbiziko lupulu landaketa, Urumeako erriberan, eta 1945erako jada 100 landare zituen sartuak. Urtero-urtero Ergobiatik eta Hernanitik familiak etortzen ziren lupulua jasotzera Antoninoren terrenora. *“Familia osoa joaten gintuan. Etxean diru gutxi eta zer erremedio! sos batzuk irabazten genizkian han eta!”*. Emakumeak eta umeak izaten ziren batez ere jasotzen zutenak. *“Bi-hiru aste pasatzen genizkian jasotzen, egunero-egunero.”*



Maria Pagola eta Antonino Pagola lupulu-loreak jasotzen Gipuzkoako lehen landaketan, Hernaniko erriberan (Vicente Ruigómez, Agricultura. Revista agropecuaria)

Lupulu lorean zegoen sekretua

Lupulu landaketak zituenak bazekien zer jaso behar zuen. Lupulu lorean zegoen sekretua. Barruan zuen lupulina, garagardoa egiteko erabiltzen dena. Eta horregatik, lorea punturik onean jaso behar zen. Ez lehenago, ez beranduago. Urteko uzta jokoan zegoen momentu horretan.

Jaso aurretik, egun bat lehenago, lurretik metro erdira mozten zen landarea. Hurrengo egunean, enborra lurretik atera landare eta guzti eta etzanda jartzen zen, altuera txikira, eserita ahal bazen edo lurrean bestela loreak banan-banan mozteko, batzuetan guraizeekin, askotan azazkalekin. *“Guk eskailerekin jasotzen genian”* aipatu digu beste testigu batek. *“Eskaileran gora igo eta taka-taka loreak jasotzen genizkian”*. Jasotako loreak saskietan pilatzen ziren, hortik zakueta pasatzeko.

Antonino Pagolaren landaketara biltzera joaten zirenek pisuaren arabera kobratzen zuten *“Egunean bertan. Hantxe zakua pisatu eta ordaintzen zitean”*. *“Ondoren zakuak zaldi-karroan jarri eta Ergobiara (Astigarraga) eramaten zitean lupulua”*. Gainontzeko baserrietan ahal zuten moduan moldatzen ziren zakuak Ergobiara eramateko, Urumea bailarakoek egunean bertan eramaten zuten askotan bildurikoa. *“Anaia joaten huen, bizikleta zaharra hartu eta atzean zakua jarrita, Ergobira!”*. Bestalde, Mutrikutik esaterako, Astigarraga urruti eta trenez garraiatzen zituzten zakuak.

Zakuak Ergobian utzi eta zegokiena kobratu ostean landaketaren jabeak bere lana bukatua zuen. Hortik aurrera, Estatua edo kasu honetan *“Fomento del Lúpulo”* delakoa zen loreak lehorteaz arduratuko zena.

Latseko presaren goialdeko landaketa

Antonio Santa Kruz izan zen landaketen lehen arrastoa, eta Latseko landaketaren berri eman ziguna. Eta hala, haritik tiraka iritsi ginen Oiarbidetarregana. Latseko landaketa jarri zuenaren semeengana. Oiarbidetarrek ere hara, Ergobiara eramaten zituzten Latse inguruan zituzten bi landaketetan jasotako lupuluak. Landaketetako bat Abillats baserri paretik hasi eta Latseko fabrikako etxerainokoa zen, 100 landare inguruz

osatua. Bestea, ordea, txikiagoa, Urumearen kontrako aiekan zegoen. Lupulua jasotzeko, beraz, erria gurutzatu behar, eta txanela izeneko ontzi txikia erabiltzen zuten, agaia edo pertiga baten laguntzaz mugitzen zutena.

Gogoan dute oraindik ere, aitzak behin eduki zuen sustoa: *“erria hazita zetorren batean, ia presan behera erori huen txanela eta guzti!”*. Lupulua jasotzean, zakueta sartu eta txanelaren bidez latsera eramaten zuten. Handik, bizikletaren parrillan zakuak jarrita Ergobiara eramaten zuten lorea, Antoninoren gana. Berak erabakitzen zuen lupuluaren kalitatea. *“Lorea gorri samarra bazen, segundakoa zen, eta berdea, primerakoa”*. Urumeako landaketak izan ziren inguruetan, oraindik ere aurki daitezke landaretzan gora igotzen diren lupuluak. Hauak izango dira, agian, Urumea bailarako historia bitxi honen azkeneko arrastoak.

Iragana etorkizun bihurtua

Ez naiz ni izango etorkizunera bidean, atzera begiratzea ere ona dela esango duen aurrea. Lupuluaren kasuan, ordea, egun garagardo artisauak hartu duen indarra ikusita, bailarako historia eza gutzea ere komenigarria litzateke. Izan ere, bertako produktuekin egindako garagardoaren bidean, iraganera begiratzea besterik ez dago, bertako lupulua ekoizteko aukera badagoela jakiteko. Hori gutxi balitz, Antonino Pagola berak ere ematen du berrikuntzarako aitzakia, eta Hernanin bertan sorturiko ekoizpen berritzaileak sortzeko aukera. Izan ere, Antoninok lupulu landaketak ez ezik, sagardoa ere egiten zuen etxean, eta etxeak esana

da, biak nahastu eta edari ezin freskagarriago bat ere sortzen zuela: sagardo lupuluduna.

Ameriketako Estatu Batuetan sagardo lupuludunak duen indarra ikusita, eta Hernanin izan zela jakinda, garagardotegien eta sagardotegien jabeek izan beharko lukete bista antzeko zerbitzuak sortzeko, eta, era berean, historiari keinu bat egiteko.

Kasualitateak hala egin baitu. Urumean lupulu landaketen ingurukoak ikertzen hasi ginenean etorri zen garagardo artisauaren loraldia. Eta zoriak nahi izan du, esaterako, egun Hernaniko Akarregi auzoko BBP garagardotegia kokatua dagoen lekuan bertan izan zela lupulu landaketa bat bere garaian, edota Antoninoren lupulu landaketa zegoen eremuari pegatuta hasi zela Otsaihen proiektua loratzen.

Eta etorkizunak esango digu, zein bide hartuko duen bertako garagardo ekoizpenak, eta izango ote den “Antonino” izeneko sagardo lupuludunik gurean (zergatik ez!).

Urumeako lupulu landaketen inguruan, ordea, etorkizunera begira ere misterioa nagusi. Erreportaje hau idazten duenak, alabaina, garbi du. Jakinaren gainean gara, hor nonbait badirela dokumentu eta fitxa zaharrak, bertako lupulu landaketei loturikoak. Non ote dauden, ordea, inork ez du jakin egun arte. Hori ere, etorkizunak esango du... paper horiek azalduko diren, hala misterioak ezkutatu dituen, Urumea erria aldameneko lupulua landaretzaren erdian gordetzen den bezala.

INFORMAZIO GEHIGARRIA

Lupulu landaketak.

- ARGIA: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2537/garagardotarako-lupulua-euskal-herrian-iragana-edo-etorkizuna>
- KRONIKA: https://kronika.eus/komunitatea/inaki-sanz-azkue_301/1570439439212-garagardotarako-lupulua-euskal-herrian-iragana-edo-etorkizuna
- GAUR8 (NAIZ): https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2019-09-14-07-00/hemeroteca_articles/lupulu-usaineko-uda-amaierak

Sagardo lupuluduna.

- ARGIA: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2583/antonino-pagolaren-errezeta-sekretua>
- KRONIKA: <https://kronika.tok-md.com/pdf/Urtarrilak202020Gehigarria.pdf>

